

# elkarberri

# 68

# Ale berezia.
# COVID-19:
# EFEO eta pandemia

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

2020ko urria - abendua / Doako alea

Lege-Gordailu: BI-945-05 - ISSN 2444-4065



Elkargoko Batzarra

# editoriala

## *Gobernu Batzar honen analisia COVID-19aren pandemiaren aurrean. Partekatzeko hausnarketak: (EFEOren azkeneko Batzar Nagusiaren sarrera-hitzaldia)*

*Zuekin guztiokin partekatu nahi genuke alarma-egoeran eta ondorengo konfinamenduan bizi izan dugun egoerari buruzko analisia, baita partekatutako uneari buruzko xehetasun batzuk ere, hausnarketa ireki gisa.*

*Gaur, oraindik ere, zailtasun handiko hilabeteak bizitzen ari gara; oso-oso hilabete gogorrak, maila pertsonalean, zenbaitetan, eta esparru orokorrean, osasun arloko profesional gisa, beste askotan. Hala ere, egoera berri eta desatsegin horrek ezin du izan oztopo harrotasunez aitortzeko kolektibo honek bere gain hartu duen jarrera ezin hobea eta zeregin eredugarria; izan ere, kolektiboak jarrera eta profil ezin hobea erakutsi ditu erantzukizun handiz eta ia-ia aho batez. Elkargo-erakunde baten organo gorena, hau da, bere Batzar Nagusia, aukera paregabea da, zalantzarik gabe, osasun-krisialdia maneiatzean euskal fisioterapeuten kolektiboak erakutsi duen ardura azpimarratzeko. Horiek horrela, Gobernu Batzar honetako kide garen aldetik, fisioterapeuta guztien lana aitortu eta eskertu nahi dugu, eta gure maitasuna helarazi nahi diegu.*

*Zuen diziplina profesionalarekiko, herritarrekiko eta zuen ordezkaritza profesionalerako organo gorenarekiko erakutsi duzuen prestasuna, konpromisoa eta leialtasuna identifikatu eta nabaritu ditugu. Zuetako batzuek hasieratik eta heldutasun eredugarriz jardun duzue zuen laguntza behar izan duten unitate klinikoetan; askok modu irekian garatu eta partekatu dituzue hamaika arreta-formula berri, urrutitik baina maitasun eta eraginkortasun berberarekin; beste batzuek osasun-agintarien eskura jarri dituzue zuen baliabide guztiak eta logistika osoa, nahiz eta horretarako banaketa-sistema propioak kolapsatu behar izan dituzuen, adierazi izan diguzuen bezala; eta gutzi-guztiek eskaini dituzue zuen ezagutza, zuen eskuak edo, besterik gabe, zuen babes emozionala, egunetik egunera.*

*Gobernu Batzarreko kideak oso harro gaude zuen jarrera eta profesionaltasunaz. Hunkitu egiten gara identifikatu ahal izan ditugun ezin konta ahal adibide jasotzen ditugunean.*

*Harrotu egiten gaitu ikusteak ezen, bizi izan dugun egoera historiko honetan, osasun-arloko politikako arduradun nagusiek eta komunikabideek funtsezkotzat eta interes orokor handikotzat hartu dutela fisioterapiaren eta euskal fisioterapeuten protagonismoa, nahiz eta diziplinak arrazoizko parte-hartze mugatua izan duen osasun-laguntzaren lehen lerroan. Guztion artean lortu dugu kolektibo batuaren eta funtsezko zeregina duenaren irudi publikoa ematea; irudi oso positiboa, eta irudi hori denek hauteman dute: euskal herritarrek, euskal osasun-sistema osoak, Osakidetzak, Eusko Jaurlaritzak, gure Osasun Sailak eta komunikabideek. Funtsezko zeregina da, eta, zalantzarik gabe, merezi du aitortua izatea. Zeregin horrek aberastu egiten gaitu kolektibo gisa, eta gure egungo eta etorkizuneko indarguneak lantzera eta ondo zaintzera behartzen gaitu.*

*Apaltasuna alde batera utziz, identifikatu dugu, halaber, EFEO, ordezkaritza-erakunde ofiziala den aldetik, eragile nagusia eta ukaezina izan dela osasun-krisialdi honen kudeaketan: diseinuen, estrategien eta lankide-proiektuen bateratzailea; solaskidea komunikabideen eta euskal gizartearen aurrean; funtsezko beste kolektibo batzuekiko izendatzaile komuna; diziplina osoaren topagunea; lurralde eta estatu mailako agintari eskudunekiko lotunea, eta erregulazio profesionalerako baliabide ukaezina. Maiz, legegintzaren premiak arauen berariazkotasun eza eta zehaztasunik eza ekarri du, eta horrek guztiak, erakundeok dugun erantzukizuna dela eta, behartu egin gaitu protagonismo aktiboa eta ausarta izatera, estentsiboki interpretatzean argitaratutako dekretu batzuk,*

*kolektiboaren zein diziplinaren orainaldirako eta etorkizunerako funtsezko erabakiak zekartzatenak. EFEOko kideak azkar jarduten ahalegindu gara, eraginkortasunez eta efizientziaz, gertatu diren arazo ugari ebazteko erantzunak emanez, eta, halaber, anbizio handiko neurriak hartu ditugu gure diziplina maitearen balioa azpimarratzeko.*

*Gobernu Batzar honek espero du zuetako bakoitzak elkargoko-erakunde honetan aurkitu izana behar izan dituzuen zaintza eta laguntza, espero zenituzten eraginkortasuna eta efizientzia, eta, inolako zalantzarik gabe, merezi izan dituzuen konfiantza, ziurtasuna eta bermea, herritarrei eskaintzen dizkiezuen zainketak bermatu eta kudeatu ahal izateko eta zuen eguneroko bizitza profesionala jasangarri egiteko.*

*Harrotasunez jakinarazten dizuegu gure irudia, diziplina profesional gisa, indarberrituta atera dela. Aipamen berezia merezi du Osakidetzako fisioterapeuten kolektiboak, espero zen bezala, "COVID pazienteen" fase akutuan batik bat zuzeneko arreta- eta laguntza-lanak egiteko agindu baitzitzaien. Lankide-talde mugatu horrek erakutsi du, zalantzarik gabe, gure esku-hartzeak baliagarriak direla, eta azpimarratu egin du arnas fisioterapiaren eta zainketa intentsiboetako unitateetan (ZIU) espezializatutako fisioterapiaren balioa. Zalantzarik gabe, lortutako emaitzak -beste espezialista batzuek eta erabiltzaileek beraiek jendaurrean aitortu dituztenak- argudio irmoak izango dira orain arte gutxietsi egin diren eskumenak eta giza baliabideak sustatu eta aberasteko. Zuen lanak harrotu eta aberastu egin gaitu! Halaber, ez da ahaztuko ustekabeko "prestasun funtzionala" onartzeko izan duzuen jarrera apal eta arduratsua; izan ere, maiz bete behar izan duzue "prestasun funtzional" hori, eta zuen gain hartu behar izan dituzue ohikoak ez diren eta zuen betebeharretatik urrun dauden rolak eta gaitasun profesionalak. Protagonismo hori, beharbada, ez da hain mediatikoa izan; baina bai funtsezkoa krisia gainditzeko, zalantza izpirik gabe.*

*Denbora-tarte honetan, ikusi dugu titulartasun pribatuko fisioterapia-zentro askok euren pertsianak itxi zituztela martxoaren bigarren hamabostaldian, nahiz eta osasun-agintariek berariaz ez agindu. Horren xede bakarra zen kutsatzeko eta birusa hedatzeko arriskua murrizteko prebentzio- eta euste-elementu bat gehiago eskaintzea. Halatan, eragin sanitario, sozial eta ekonomiko globala arintzea lortu zen; baina, horretarako, jarduera etetearen zama hartu zuten euren gain: erantzukizun eta etika profesional eztabaidaezina erakutsi zuten. Lehenengo egun haiek oroitzean, hunkitu egiten gaitu erakutsi zenituzten eskuzabaltasunak eta ardura eredugarriak.*

*Baina, hori gutxi balitz, honako hau guztia gehitu behar da: ehunka laguntza-proposamen desinteresatu, sare publikorako materialen eta norbera babesteko ekipamenduen lagapen altruista, Telelaguntza Programan laguntzeko eta parte hartzeko prestasuna, berariazko prestakuntza-planetako parte-hartze masiboa, interes teknikoko dokumentazioaren trukaketa, arauen eguneratzeak, infografiak, etab.*

*EFEOko Gobernu Batzarrak, halaber, aitortu egin nahi du erakundearen kudeaketan eta administrazioan diharduten pertsonen lan garrantzitsua (administrariak, zuzendari teknikoa, aholkulari juridikoa, komunikazio-enpresa, zerga-aholkularitza...). Hunkituta, gure esker ona eta aintzatespen publikoa adierazi nahi dizkizuegu, egin duzuen lan bikainagatik eta izan duzuen egundoko konpromisoagatik.*

*Azken batean, izan duzuen jarrerarekiko mirespena adierazi nahi dizuegu, eta barkamena eskatu nahi dizuegu zerbaitetan edo askotan huts egin badugu eta zuen mailan egotea lortu ez badugu.*

*Zorionak guztioi eta eskerrik asko bihotz-bihotzez!*

**Lehendakaritza eta Zuzendaritza**
Iban Arrien Celaya
**Koordinazioa:**
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
**Gauzatzea eta Maketazioa**
J&J Creativos
**Argazkigintza**
ORO
**Argitalpena**
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
**Hiruhilabeteko argitalpena**
Digitala

**Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.**

**Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.**

**Elkargokieei emateko dohainezko alea**

## OHARRA ELKARGOKIDEARI:

Gobernu Batzordeak interesgarritzat jo du elkargoko aldizkariaren edizio berezi hau egitea, zeina bat datorren azken hiruhilekorako aurreikusitako argitalpenarekin.

Konturatuko zinen moduan, azken bi aldizkariak eten egin ziren, eta hau soilik formatu digitalean egongo da eskuragarri, gure gizartean bizitzen ari garen ezohiko egoera dela eta.

Ez da beharrezkoa esatea erakunde hau zure gorabehera eta zalantza berberak ari dela bizitzen; hori dela eta, garrantzitsutzat jo da ale berezi hau egitea, non laburki azaltzen den EFEOk pandemiaren azken hilabete hauetan egin duen guztia.

Gure Elkarberri aldizkariaren ale honekin Euskadiko fisioterapeuten kolektibo osoa omendu nahi dugu, atzera begiratzeko unea heltzen denean gure memoria aberasteko balioko duen erregistro historiko gisa, baita estrategia kolektiboaren eredu on gisa eta COVID-19aren osteko etorkizunari optimismoarekin begirarazi digun emozio-bilduma gisa ere.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiet pandemian zehar materialak sortzeko lan egin duten adiskideei, gure lanbidea indar handiagoarekin sustatzeko xedearekin.

Azalpen-ohar hau amaitu aurretik, animoak bidali nahi dizkizugu, eta gogorarazten dizugu erakunde hau prest egongo dela behar duzunerako.

***Idazketa Kontseilua***



MARTXOA **3**

## COVID-19 KORONABIRUSAri buruzko Informazio-Oharra

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Gobernu Batzordeak COVID-19ari begira hartutako neurriei buruzko informazio-oharra.*

ikusi oharra

MARTXOA **6**

## CGCF, Osasun Saileko Ministerio eta Inklusio, Gizarte-Segurantza eta Migrazio Ministerioko Covid-19 Koronabirus-ari buruzko dokumentazioa

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Fisioterapeuta Elkargoen Batzorde Nagusiaren Idazkaritza Orokorraren eskutik, Osasun Ministerioaren eskutik eta Berdintasun, Gizarte Segurantza eta Migrazioen Ministerioaren eskutik jasotako COVID-19 koronabirusarekin lotuta dokumentazioa.*

ikusi edukia

MARTXOA **6**

## Fisioterapeuten gomendioak, ospitaletan ed etxean isolatuta dauden pertsonentzat

**NORENTZAT:** Elkargokideak, CGCF, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

*Donostialdeako ESIko lankide-talde batekin batera, gomendioen infografia bat eta oinarrizko ariketen programa bat diseinatzea, jarduera fisikoa "konfinamenduaren" eta jarduera-faltaren egoeraren albo-ondorioak murrizteko fisioterapia-estrategia gisa sustatzeko xedearekin.*

MARTXOA **9**

## Fisioterapeuten gomendioak, ospitaletan ed etxean isolatuta dauden pertsonentzat

**NORENTZAT:** CGCF

*Isolamendu-egoeran dauden pertsonentzako elkargo-gomendioen dekalogoaren inpaktu mediatikoak.*

MARTXOA **11**

## Koronabirusari aurre egiteko neurriak Fisioterapia Zentroetan: Efeoaren gomendioak

**NORENTZAT:** Elkargokideak, Fisioterapia-zentroak

*Kolektiboaren jarduera profesionalarekin lotutako ohiko zalantzen erantzunen bilduma, elkargoak aztertutako dokumentu ofizialetatik ateratakoak.*

ikusi edukia



MARTXOA 12

## Kezkak eta kontsultak laboral eta fiskal aspektuak Covid-19 krisialdi epidemiologikoaren aurrean

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Lanarekin, enpresa-jarduerarekin, zergekin, gizarte-segurantzarekin eta ABLEE-ekin lotuta jasotako zalantza eta kezken erantzunak.*

ikusi edukia

MARTXOA 13

## Eusko Jaurlaritzak koronabirus-agatik "Osasun Alerta" egoera dekretatu du

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Gaur eguerdian Eusko Jaurlaritzak osasun-alarmaren egoera ezarri da koronabirusagatik Euskal Autonomia Erkidegoan, eta erabaki hauek hartu dira premiaz:*

- *Osasun sailburuak, Nekane Murgak, "Osasun Alerta edo Larrialdi Aitorpena" sinatu du (Osasun Publikoari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko legeria).*
- *Segurtasuneko sailburu Estefanía Beltrán de Heredia "Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI)" aktibatu du (Larrialdiak Kudeatzeko EAEko Dekretua eta Legea)*
- *Iñigo Urkullu Lehendakariak Dekretu bat sinatu du, zeinaren bidez bere gain hartzen duen –aipaturiko euskal legediak ezartzen duen eran- larrialdi honen aurrean gidaritza bakarra eta babes zibileko erantzuna. Une honetatik aurrera, Lehendakariak gidaritza hori hartuko du bere gain, aholku-batzorde batek lagunduta.*

MARTXOA 13

## EFEOan "Telelana" protokoloaren aktibazioa

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Telelanarekin hasteko hartutako neurriak jakinarazi dira.*

MARTXOA 15

## Jarduera Eteteko Ohar Ofiziala

**NORENTZAT:** Elkargokideak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Satse

*Elkargoak erabaki du metro eta erdiko gutxieneko segurtasun-distantzia bermatzen ez duten jarduerak aldi baterako etetea, arlo pribatuan, hurrengo hamabost egun naturaletan.*

MARTXOA 15

## Presazko Oharra

**NORENTZAT:** Elkargokideak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Satse

*Fisioterapeuta Elkargoen Batzorde Nagusiak, Fisioterapeuten Espainiako Elkarteak eta Fisioterapia Fakultateen Dekanoen Konferentzia Nazionalak Osasun Ministerioari bidalitako jakinarazpen bateratua.*

ikusi jakinarazpena

Kide agurgarriak:

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialetik honen bidez, Eusko Jaurlaritzak atzo ofizialki iragarri zuen osasun-larrialdiko egoeraren aurrean, eta gaur goizean garatu den eta Lehendakariari Euskadiko Babes Zibileko Planaren (EBZP) Zuzendari Bakarreko lanetan laguntzen dion Aholku Batzordearen bileraren ondoren, guztioi zuzentzen gara egoera zail eta aparte honetan hartu duten ondorengo eskaera ofiziala jakinarazteko; Metro eta erdi inguruko gutxieneko segurtasuna bermatzen ez duten jarduerak, esparru pribatuan, aldi baterako osasun jarduera guztiak eteteko, hurrengo hamabost egun naturaletan.

EFEOtik, distantziaren mugaketa honek oso zail egiten duela eguneroko osasun jarduerari eustea ulertzen dugu, erakunde honek ordezkatzen duen taldeak beste edozein motatako adierazpenetara joatea ia ezinezkoa delarik.

Duela gutxi onartutako neurria ofizialki bihar igandean sartuko da indarrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren. Hala ere, ulertuko duzuen itxaropenarekin, zuhurtzia, zorroztasun eta erantzukizun kolektiboaren irizpidean oinarrituta, arren berehala aktibatzea gomendatzen dugu.

Osasuna zaintzeko funtsezko eragile gisa, gai izan behar gara gure irudi onena eskaini eta mantentzeko, gure betebehar bereziei zorrozki eutsiz eta babes zibileko eta osasun agintaritzekin lankidetzan arituz.

Gure aldetik konpromisoa hartzen dugu gure jarduketa-politikari eusteko eta orientazio egokiak eskaintzeko, bizitzen ari garen egoera zail eta konprometitua errazago gainditzeko. Era berean, hurrengo egunetan eta asteetan intentsiboki lan egiteko konpromisoa hartzen dugu izaera fiskal eta laborala duten neurri eta politiketan eskaera ofizialak egiteko eta adostasun-lortze estrategiak ezartzeko, eta zalantzarik gabe, muturreko erabaki honek zuen ingurune profesional eta pertsonalean izan ditzakeen ondorioak eztitzeko.

Erabat ziur gaude krisi epidemikoaren ebazpenak berehala ahalbidetuko duela normaltasun osora lehenbailehen berbideratzea.

Amaitzeko, gure egiten ditugu Urkullu lehendakariaren hitzak:

"Erronka honek gutako bakoitzaren onena ematea eskatzen digu. Prebentzio-neurriak gureganatu, osasun publikoa zaindu eta behar handiena duten pertsonei lagundu behar diegu.

Zuetako bakoitzaren esfortzua, konpromisoa eta lankidetza eskertzen dugu.

Eutsi diezaiegun ekintza-batasunari eta erabakitasunari egoera hau gainditzeko".

Animo asko. Eskerrik asko!
EFEOko Gobernu Batzordea


## Convenio COFPV:

Tras renovar el acuerdo con el COFPV, todos los colegiados tendrán la posibilidad de utilizar la aplicación Organízate.info durante 6 meses sin compromiso, incluyendo también un curso de formación y la importación de datos.

ORGANÍZATE

¡¡¡¡ Ahorra tiempo y papel en la gestión de tu consulta !!!!

Organízate es una aplicación web que permite controlar el día a día de la clínica, desde cualquier lugar de una forma sencilla y rápida *(Windows, Mac, Linux, Android, iPhone, iPad)*.

Llevamos 10 años con profesionales especializados que han puesto la gestión de su clínica en manos de ORGANÍZATE

**Por todo esto nos consideran diferentes:**
- Olvida el papel; consentimientos firmados a través del móvil o tablet.
- Tus pacientes te pedirán cita sin molestarte; cita online.
- Cada profesional tendrá sus propios informes; historial clínico personalizado.
- Recordatorios de las citas automáticamente.
- Campañas de publicidad de una forma rápida y sencilla.

Olvida el tener a dos pacientes a la misma hora por error o pasarte horas intentando ajustar horarios de trabajadores para completar las citas.

Entra en www.organizate.info y comprueba todas las posibilidades que te ofrecemos con la demostración online.

**Todos los colegiados que soliciten la demo tendrán 6 meses gratis sin compromiso, un curso de formación y la importación de datos.**

*Entra ahora y valóranos, estamos preparados!!*

**Web:** www.organizate.info **Email:** contacto@organizate.info **Teléfonos:** 976 530 762 - 638 294 684

MARTXOA 15

## Presazko Oharra

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Jasotako kontsultei begira egindako oharrak.*

ikusi edukia

MARTXOA 16

## Zalantzak eta premiazko Gaiak

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Premiazko eta etxeko laguntza-eskaerekin lotutako zalantzak.*

ikusi edukia

MARTXOA 16

## Premiazko jakinarazpena CGCFko presidenteari

**NORENTZAT:** CGCFren presidentea

*Fisioterapeuten Elkargoen Kontseilu Nagusiaren (CGCF) demanda ofizial baterako babes-eskaera, arlo pribatuko zentroen itxiera eteteko eta ABLEE-en bermeak aktibatzeko.*

MARTXOA 16

## Lanaren zuzendaritza orokorraren informazioa

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren Enpleguko eta Gizarte Ekonomiako Estatuko Idazkaritzaren Lan Zuzendaritza Nagusiak bidalitako barneko oharra, kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko neurriei buruzkoa (ABLEEak), egoera honetatik eratorrita, hainbat kontu interesgarrirekin batera, hala nola ezinbesteko kasuen kontzeptuaren definizioa, ABLEEak izapidetzeko agintaritza eskuduna, erregulaziorako ezarritako kausak, etab.*

MARTXOA 17

## Babes-Eskaera Formala

**NORENTZAT:** Lehendakari, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila

*Zentro pribatuetan fisioterapia-jarduerak etetera bideratutako irizpideak eta lege-oinarriak abian jartzeko eskaera.*

MARTXOA 17

## Babes-eskaera

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Zentroen nahitaezko itxierarako babes-eskaerari buruzko informazioa eta bidalitako prentsa-oharra, gutxieneko segurtasun-neurriak betetzeko ezintasuna dela eta.*

ikusi edukia

MARTXOA 17

## Foru-aldundien zerga-arloko neurriak

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako zerga-neurriak, erraztasun fiskalak eskaintzeko eta Bizkaiko pertsonen likidezia hobetzeko, bereziki mikroenpresa, ETE eta autonomoentzat, baita inpaktu ekonomiko negatibo handiagoa prebenitzeko ere.*

ikusi edukia

MARTXOA 18

## Ekintzak Foru Aldundien Aurrean

**NORENTZAT:** Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia

*Laguntza-eskaera zerga-arloko neurri eta estrategiak hartzeko.*

MARTXOA 18

## Gaztela-Mantxako ebazpena

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila

*Gaztela-Mantxako Gobernuaren Osasun Sailaren ebazpena: premiazko neurriak hartzea osasun- zentro, -zerbitzu eta -establezimendu pribatuei begira, eta, horrekin batera, aurreko eguneko gure eskaera justifikatzea.*

ikusi ebazpena

MARTXOA 18

## ERTEEI Buruzko Informazioa. Txosten Tekniko-Juridikoaren zain

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*ABLEE-ei buruzko txosten tekniko-juridiko bat egiteko hartu dugun konpromisoaren argibideak, zerga- eta lan-arloko marko legala aurreikusiko duena berme handienekin.*

ikusi edukia

MARTXOA 18

## Errioxako ebazpena

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila

*Errioxako Gobernuaren Osasun Publikoaren, Kontsumoaren eta Zaintzen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena, elkargoaren eskaeraren irizpide berberei jarraitzen diena.*

ikusi ebazpena

MARTXOA 19

## Txosten Teknikoak Ablee-Ak aktibatzeko (Aldi baterako lan erregulazio espedienteak)

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Ezinbesteko kasuengatiko aldi baterako lan-erregulazioko espedienteak eskatzeko txosten teknikoak eta dokumentazioa, zentroen eskutik.*

ikusi edukia

MARTXOA 20

## Lan Arriskuen Ebaluazioa Erteentzako

NORENTZAT: Elkargokideak

*Lan-arriskuen ereduzko txostena, ABLEE-en eskaeretan atxikitzeko.*

ikusi txostena

MARTXOA 20

## Osasun Ministerioaren erantzuna zentroen itxierari buruz CGCFk egindako jakinarazpenari

NORENTZAT: Elkargokideak

ikusi erantzuna

MARTXOA 21

## EFEOeko gidaliburuak autonomoentzako eta soldatapeko profesionalentzat prestatuak

NORENTZAT: Elkargokideak

*Legegintzako Errege Dekretuaren bidez Ministroen Kontseiluak joan den martxoaren 17an onetsitako neurri garrantzitsuenak bilduko dituzten erreferentziako gidak.*

MARTXOA 21

## Lankidetza eskaera agindu jarduera etentzea

NORENTZAT: Euskadiko sindikatuak

*Euskadiko sindikatu guztiei eskatzea lankidetzan aritzeko fisioterapia-jarduera oro eteteko eta arlo pribatuko premiazko markoarekin ez lotutako zentroak ixteko.*

MARTXOA 21

## Ezinbesteak eragindako ABLEE-en balioespen posibleak eskatzea

NORENTZAT: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila

*Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren jakinarazpen ofiziala, ezinbesteko kasuengatiko ABLEEak aintzatesteko eskaerarekin lotuta.*

MARTXOA 23

## Euskadi-Bizkaiako Osasun Elkargoen arteko oharra, zentro pribatuen derrigorrezko itxiera eskatzen

NORENTZAT: Elkargokideak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria

ikusi jakinarazpena



Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

# MEDIDAS PARA TRABAJADORES/AS ASALARIADOS/AS (“POR CUENTA AJENA”) CONTENIDAS EN EL RD LEY 8/2020

El pasado martes 17 de febrero el Consejo de Ministros aprobó un Real Decreto Ley con toda una batería de medidas que pretende, en palabras de sus responsables, “intentar hacer frente al impacto social y económico que nuestro país está sufriendo a consecuencia del COVID-19”.

Dentro de este Real Decreto se señala un paquete de medidas que afectan a trabajadores/as asalariados/as y autónomos/as. A continuación, se resumen las principales características de las mismas, en lo que a trabajadores/as asalariados -también conocidos/as “trabajadores/as por cuenta ajena”- se refiere:

## Medidas para mejorar la CONCILIACIÓN:

- Carácter preferente del trabajo a distancia:
  - Se establece que las empresas adopten las medidas necesarias para garantizar sistemas de trabajo alternativos para sus trabajadores (siempre que ello sea “técnica y razonablemente posible”), principalmente el trabajo a distancia. Esta modalidad será prioritaria frente al cese temporal o la reducción de la actividad.
- Derecho de adaptación del horario y reducción de jornada:
  - Los/as asalariados/as que acrediten obligaciones de cuidado respecto del cónyuge/pareja de hecho o familiares hasta el segundo grado de consanguinidad, tendrán derecho a adaptar y/o reducir su jornada cuando concurran circunstancias excepcionales relacionadas con las actuaciones necesarias para evitar la transmisión del COVID-19.
  - Estas circunstancias son, de forma sintética, las siguientes:
    - Cuando la persona trabajadora tenga que cuidar a alguno de los familiares antes citados, a causa del virus.
    - Cuando se hayan producido, a consecuencia del virus, cierre de centros educativos o de otro tipo que otorgaran atención o cuidados a las personas necesitadas de los mismos.
    - Cuando la persona que hasta el momento se hubiera encargado del cuidado o asistencia directos de cónyuge o familiar de la persona trabajadora no pudiera seguir haciéndolo por causas justificadas relacionadas con el covid-19.

La adaptación de jornada puede consistir en cambio de turno, alteración de horario, horario flexible, jornada partida o continuada, cambio de centro de trabajo, cambio de funciones, cambio en la forma de prestación del trabajo, incluyendo la prestación de trabajo a distancia, o en cualquier otro cambio de condiciones que estuviera disponible en la empresa o que pudiera implantarse de modo razonable y proporcionado durante el tiempo que dure esta situación extraordinaria.

Además, se establece el derecho a una reducción especial de la jornada de trabajo en los supuestos contemplados en el artículo 37.6 del Estatuto de los Trabajadores (cuidado de menores de 12 años, discapacitados o familiares dependientes, aunque éstos últimos realicen una actividad retribuida) que puede llegar hasta el 100% de la jornada.

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

# GUÍA APLAZAMIENTO
# PAGO IMPUESTOS AUTÓNOMOS/AS

## 1.- ¿QUIÉN PUEDE APLAZAR?

Personas físicas o entidades con volumen de operaciones inferiores a 6.010.121, 04 € en 2019

## 2.- ¿QUIÉN PUEDE SOLICITARLO?

El propio titular o un tercero que actúe en su nombre (ya sea colaborador social o un apoderado a realizar el trámite)

- El acceso Clave PIN sólo permite tramitar deudas propias
- El colaborador o apoderado debe cumplimentar la casilla del NIF del obligado que solicita aplazamiento

## 3.- ¿CUÁNTO SE PUEDE APLAZAR? ¿DESDE CUÁNDO Y HASTA CUÁNDO?

* Se pueden aplazar hasta 30.000 €

* Desde el viernes 13 de marzo hasta el 30 de mayo

* Durante 6 meses y periodo de carencia de 3 meses

- Afectará a las PYMES que están en el SII del IVA que el 30 de marzo realizan el pago de febrero; al pago fraccionado de abril en el Impuesto sobre Sociedades y a las retenciones que se ingresan el 20 de abril

## 4.- ¿CARENCIA E INTERESES?

La carencia es de 3 meses : En los primeros 3 meses no se paga nada y si a los 3 meses se paga no habrá intereses y se si se paga a los 6 habrá intereses de demora.

EJEMPLO
Una PYME o Autónomo que tenga que ingresar el IVA el 20 de abril, si solicita aplazamiento no pagará nada hasta el 20 de julio y hasta el 20 de enero tendrá un fraccionamiento con intereses de demora

## 5.- ¿EFECTOS CAMPAÑA RENTA 2019?

Aún no se conocen las posibles decisiones al respecto.

**En Bilbao, 21 de marzo de 2020**

*Fdo. D. Roberto Romero Soto Jn.*
*Secretario del COFPV / EFEOeko Idazkaria*

**AGRADECIMIENTO A LAS FUENTES:**
**Asociación de Trabajdares Autónomos (ATA)**
**Unión Profesional de Trabajadores Autónomos (UPTA)**



Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

# CESE DE ACTIVIDAD DE TRABAJADORES AUTÓNOMOS de acuerdo con Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del COVID-19.

## A: ¿QUÉ REQUISITOS DEBO CUMPLIR?

- Estar afiliadas/os y en alta, en la fecha de la declaración del estado de alarma, en el **Régimen Especial de la Seguridad Social de los Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos**
- En el supuesto de que su actividad no se vea directamente suspendida en virtud de la declaración del estado alarma, acreditar la reducción de su facturación en, al menos, un 75%, en relación con la efectuada en el semestre anterior. (El colectivo fisioterapeuta nos encontramos ante esta última situación a fecha de hoy, sábado 21 de marzo)
- Hallarse al corriente en el pago de las cuotas a la Seguridad Social. No obstante, si en la fecha de la suspensión de la actividad o de la reducción de la facturación no se cumpliera este requisito, el órgano gestor invitará al pago al trabajador/a autónomo/a para que en el plazo improrrogable de treinta días naturales ingrese las cuotas debidas. La regularización del descubierto producirá plenos efectos para la adquisición del derecho a la protección.

*No se requiere período mínimo de cotización.

## B: ¿Y SI TENGO TRABAJADORES A MI CARGO?

Cuando la/el trabajadora/or autónoma/o tenga una/o o más trabajadoras/es a su cargo, será requisito previo al cese de actividad el cumplimiento de las garantías, obligaciones y procedimientos regulados en la legislación laboral, que será acreditado mediante declaración jurada del trabajador/a autónomo/a. En tales casos, se comunicará la extinción de la empresa o el cese temporal o definitivo de su actividad a la Tesorería General de la Seguridad Social o al Instituto Social de la Marina, así como las bajas en el correspondiente régimen de los trabajadores/as a su cargo.

## C. ¿POR QUÉ CAUSAS SE PUEDE SOLICITAR ESTE CESE DE ACTIVIDAD?

- Por fuerza mayor, determinante del cese temporal o definitivo de la actividad económica o profesional
- Por causas económicas, en el supuesto de que su actividad no se vea directamente suspendida en virtud de la declaración del estado alarma, acreditar la reducción de su facturación en, al menos, un 75%, en relación con la efectuada en el semestre anterior.

El colectivo fisioterapeuta nos encontramos ante esta última situación a fecha de hoy, sábado 21 de marzo

## D. SITUACIÓN DE CESE DE ACTIVIDAD POR FUERZA MAYOR

El trabajador/a autónomo/a debe presentar a la Mutua Colaboradora con la Seguridad Social:

- **Declaración jurada**, en la que deberá constar la fecha de la producción de la fuerza mayor, 14 de marzo de 2020. Se utilizará modelo normalizado de cada mutua.
- **¿Cuándo** lo puedo solicitar y cuando nace mi derecho a percibir la prestación?
    - Se puede solicitar desde el 18 de marzo de 2020.
    - Se reconocerá el derecho desde la declaración del estado de alarma, 14 de marzo de 2020, y tendrá un mes de duración o hasta último día del mes en que finalice el estado de alarma, si se prorroga.

*Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala*
C/ Rafaela Ibarra, 8 - 1º Izd 48014 Bilbao
cofpv@cofpv.org
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Tel.: 944 020 155
www.cofpv.org

MARTXOA 24

## Materiala ematea

NORENTZAT: Elkargokideak

*Osakidetzari materiala dohaintzan emateko informazioa.*

MARTXOA 25

## Komunikazio-proposamena

NORENTZAT: Donostiako Ospitaleko Komunikazio Saila

*Elkargoaren prestutasuna komunikazio-ekintzak egiteko, kolektiboak osasun publikoan egin duen lana baloratze aldera.*

MARTXOA 25

## Osasun Sailburuaren Martxoaren 24ko Agindua ehaan argitaratu egin da: Atzeragarriko Asistentzia-Aktibitate Pribatuaren etendura

NORENTZAT: Elkargokideak

ikusi ebazpena

MARTXOA 30

## Elkargoaren jakinarazpena

NORENTZAT: Elkargokideak

Elkargoaren jarduketa-ildoei buruzko jakinarazpena, NBEak eskuratzeari eta 10/2020 Legegintzako Errege Dekretu berriari buruzkoa. Azken hori Espainiako Gobernuak argitaratu du, eta baimen ordaindu berreskuragarria arautzen du besteen kontura lan egiten duten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat, herritarren mugikortasuna murrizteko xedearekin COVID-19aren aurkako borrokaren testuinguruan.

ikusi edukia

MARTXOA 31

## Begi-Keinu Positivo Bat

NORENTZAT: Elkargokideak

*Elkargoaren webgunean “Keinu positiboa” izeneko atal bat sortzea, elkargoan COVID-19aren alderdi zehatz batzuen inguruan dugun ikus-entzunezko materiala eta informazioa herritarrei eta kolektiboari bidaltzeko sortutako espazioa. Honako hauek dira alderdi horiek:*

ikusi atala




Kide agurgarriak:

Jakinarazten dizuegu gaur, 2020ko martxoaren 26an, Nekane Murga Osasun sailburuaren Agindu bat argitaratu dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, ezohiko neurriak ezarriz eta aktibatuz Euskal Autonomia Erkidegoko alor pribatuaren asistentzia-jarduerari dagokionez, koronabirusaren (COVID-19) egoera eta bilakaera dela eta. Horrela, Euskadik bat egin du Gaztela-Mantxa, Andaluzia eta Galizia bezalako beste lurralde batzuekin, non dagoeneko onetsi dituzten antzerako neurriak.

Agindu hori indarrean sartuta, sei neurri zehatz abian jartzea erabaki da:

1. Atzera daitekeen asistentzia-jarduera oro etetea Euskadiko titulartasun pribatuko osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan.
2. Premiazkoa ez den eta atzera daitekeen asistentzia-jardueraren oro etetea ospitale-arloan (atzeratu ezin diren kontsulta eta ospitaleratze programatuak).
3. Diagnostikoak eta kanpoko kontsultak etetea, atzeraezintasun-irizpide bera ezarriz.
4. Etxeko asistentzia atzeraezina, premiazkoa edo etenezina etetea.
5. Erakunde pribatuetako baliabide materialak eta giza baliabideak eskuragarri jartzea.
6. Osasun Sailaren gidalerroei jarraitzea.
7. Agindu honen indarraldia krisi-garaiaren barruan kokatzen da.

Dakizuen moduan, guk krisiaren hasieratik erreklamatu ditugu agindu eta ebazpen ofizial horiek emateko. Alde horretatik, uste dugu orain abian jarri duten araua bi faktoreren emaitza dela, zalantzarik gabe: batetik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan neurri horiek berariaz ez adieraztea (ulergaitza bada ere), eta, bestetik, elkargo honek eta Euskadiko ia osasun-kolektibo osoak etengabe eta indar handiz egin dituzten ekintza, eskakizun, aldarrikapen eta erakunde arteko harreman guztiak, hedabideetan hedapen handia izan dutenak. Izan ere, hala egin behar zela ulertu du osasun-kolektibo osoak; hain zuzen, Euskadin, bederatzi osasun-kolektibok egin dute bat eskaera horiekin, estatu osoko ordezkaritza eta kohesio handiena lortuz. (Hitz-tarte labur bat egin nahiko nuke kolektiboko gainerako kideei eskerrak emateko eta haien lana aintzatesteko, bereziki erizainen kolektiboari, zalantzarik gabe rol nabarmena ari baitira edukitzen, eta identitate eta erantzukizun profesionalaren adierazgarri diren keinu ugari egin baitituzte krisia konpontzeko prozesu honetan).

Osasun sailburuaren Agindu hori aztertuta, ondorio aipagarriak atera daitezke gure kolektiboari dagokionez:

- Orain, martxoaren 26an, Sailak agindu digu premiazkoa ez den eta atzera daitekeen asistentzia-jarduera oro eteteko. Hori adierazgarria da; izan ere, Euskadin dauden zentro guztiek (hirurehunetik gora) ateak ixtea eta jarduera denbora-mugarik gabe etetea erabaki zuten duela astebete baino gehiago, beren borondatez eta beren zentzuari eta erantzukizun profesionaleko irizpideei jarraituz.
- Orain, martxoaren 26an, Sailak agindu digu premiazkoa ez den eta atzera daitekeen etxeko asistentzia-jarduera oro eteteko. Hori adierazgarria da; izan ere, badakigu erabaki hori hartu eta “indarrean” jarri duzuela prebentzio-neurri gisa, hori ere zuen erantzukizunaren eta kode deontologikoaren testuinguru berean.
- Orain, martxoaren 26an, Sailak agindu digu zentro pribatuetako baliabide materialak eta giza baliabideak eskuragarri izateko. Hori adierazgarria da; izan ere, jakin badakigu kontsulta eta eskaintza ugari helarazi dizkiguzuela eta, horri esker, guk ekintzak abian jarri eta kontaktuak ezarri ditugula esparru publikoko logistikaren arduradunekin. Hain zuzen, dagoeneko ezarri dira zuen esku dituzuen baliabideak erabilgarri jartzeko eta banatzeko mekanismoak.
- Orain, martxoaren 26an, Sailak agindu digu Osasun Sailak ematen dituen gidalerro guztiei jarraitzeko. Hori adierazgarria da; izan ere, kolektibo honek argi utzi du ez dela nahitaezko aginduen zain geratzen egoerari erantzuteko eta ekintza zehatzak gauzatzeko, betiere erantzukizuna, eskuzabaltasuna eta zentzua, bere alderdirik argienean, oinarri hartuta.

Azkenik, gogorarazi behar dut alarma-egoera deklaratzen duen martxoaren 14ko 463/2020 EDak Osasun Ministerioak emandako aginduen mende uzten dituela autonomia-erkidegoen mailako lurralde-politika guztiak. Hori dela eta, erakunde garrantzitsuenak behartuta gaude adi egotera eta presio-politikei, erakundeei zuzendutako deiei eta hedabideekiko harremanei are enfasi handiagoarekin eustera, gobernu zentraleko erakunde eskudunek ere neurriak har ditzaten ildo berean eta berriki onetsi den lurralde-mailako araudia alda ez dadin.

Esker ona adierazten diegu Eusko Jaurlaritzako agintaritzei, onetsi dituzten neurriengatik. Horrez gain, gure jarrera arduratsua berresten dugu, eta, kolektibo osoaren izenean, adierazten dugu prest gaudela laguntzen jarraitzeko, krisia erabat konpondu arte.

Lortu dugu!
Animo guztiei, eta gogoratu: elkarrekin gehiago lor dezakegu!

Roberto Romero

APIRILA **01**

## Elkargoaren ziurtagiria: NBEak eskuratzea

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Ziurtagiri ofiziala, norbera babesteko ekipamenduak erosteko ezintasunarekin lotuta, ABLEE-en eskaeren dosierrean gehitzeko, jardueraren etetea..., agintaritza eskudunaren aurrean.*

ikusi ziurtagiria

APIRILA **02**

## Irizpide tekniko-juridikoari buruzko txostena. 2020ko apirilaren 2a

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Elkargoaren txosten tekniko-juridikoa, bildutako kanpoko analisi eta iritzietan oinarrituta, non gure jarduera profesionala orientatu behar duten irizpideak zehazten diren.*

ikusi txostena

APIRILA **03**

## Osasun Ministerioaren baiespen-erantzuna

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Osasun Ministerioak arrazoia eman digu, eta nahitaezko itxieran gehitu du gure jarduera.*

ikusi erantzuna

Estimadas/os compañeras/os

LORTU DUGU!. ¡Juntas y juntos lo hemos conseguido!.

El Gobierno de España rectifica y matiza lo sostenido hasta ahora, señalando el valor esencial de nuestra actividad profesional pero identificando también el razonable cierre de centros y suspensión de actividad para todas aquellas situaciones clínicas que no se identifiquen como indemorables y/o urgentes.

En la tarde de hoy, la Presidencia del Consejo General de Colegios de Fisioterapeutas, ha compartido con nosotros un comunicado recibido desde la Dirección General de Ordenación Profesional y en respuesta a nuestra última carta que fuera remitida ayer al Sr. Ministro de Sanidad, donde se nos traslada esta resolución, permitiendo acogerse a todo el colectivo profesional del Estado a las mismas condiciones normativas que ya se habían estimado en Euskadi, Cataluña, Andalucía, Galicia y Castilla la Mancha.

Nos congratulamos enormemente por esta acertada y más que razonable resolución, identificándola como la única vía posible que evita la indeseable asimetría legislativa hasta ahora vigente y nos enmarca a la totalidad de fisioterapeutas bajo los mismos criterios de funcionamiento.

Ni qué decir del papel jugado por parte de todo el colectivo y de sus organizaciones representativas. Nuestro sincero reconocimiento a vuestro cierre voluntario y responsable; nuestro agradecimiento a vuestra plena confianza en nuestra estrategia; nuestro agradecimiento al Consejo General, a su Comité Ejecutivo, a la Asociación Española de Fisioterapeutas, a la Conferencia Nacional de Decanos de Facultades de Fisioterapia, a la W.C.P.T., a los Colegios sanitarios que se sumaron y apoyaron nuestra reivindicación, a las organizaciones sindicales que nos han apoyado, a los medios de comunicación y, cómo no, a Josune Gorospe -única Diputada que señaló esta incongruencia interpelando al Sr. Ministro ante la Comisión de Sanidad que se celebró ayer en el Congreso de los Diputados, y haciéndose eco de nuestro llamamiento previo-. Mila esker guztiei!

Ahora sí, centrémonos en lo que nos tendrían que haber permitido desde el minuto cero: potenciar nuestra participación allá donde realmente nos necesitan para aportar nuestros conocimientos, nuestras habilidades y nuestro corazón y manos; y acelerar así procesos agudos en UCI, restablecer funcionalidad y prevenir los efectos de la limitación de actividad física, mitigando, en definitiva, los efectos de esta grave pandemia.

Nos espera sin duda un largo recorrido en el que seguiremos luchando para aportar nuestro granito de arena.

Besarkada estu bat gure partez eta gogoratu: elkarrekin gehiago lor dezakegu!

Adeitasunez,
Roberto Romero

(ROGAMOS DISCULPÉIS LA AUSENCIA DEL TEXTO EN EUSKERA, FRUTO DE LAS DIFICULTADES LOGÍSTICAS QUE ESTAMOS SUFRIENDO)

APIRILA **06**

## Lanbide Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren erantzuna fisioterapeuten kolektiboari

**NORENTZAT:** Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza

*Ezinbesteko kasuengatiko ABLEEak onartzeko eskaera, kolektibo pribatuan.*

APIRILA **06**

## Telelaguntza-Programa

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Elkargoaren telelaguntza-programaren aurkezpena eta hura garatzeko eskaera.*

APIRILA **07**

## Premiazkoa eskaera

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria

*Zerbitzu atzeraezinetan edo funtsezko zerbitzuen arretan lan egiten duten langileen kolektiboak NBEak eskuratzeko laguntza-eskaera.*

Elkargokide agurgarria,

Lehenik eta behin, EFEOk eskerrak eman nahi dizkio kolektibo osoari egun hauetan iritsi zaizkigun ekarpen/iradokizunengatik, hainbat komunikazio-bideren bidez.

Gehien errepikatu den proposamenetako bat telelaguntza-programa bat abian jartzea izan da, herritarrek fisioterapiako gaiei buruz egindako kontsultei erantzuteko; izan ere, kontsulta horiek telefonoz iristen ari dira EFEOra.

Horren aldeko apustua egiten dugu, talde bezala, gure Osasun alorreko ardura eta arreta eskaeraren bati erantzun egokia eman behar diogula ulertzen dugularik.

Programa hau aurrera ateratzeko, ezinbestekoa da zuen laguntza izatea, borondatez eta modu altruistan. Nabarmentzekoa da zerbitzu hori bide telematikoz eta mugatuta egingo dela, COVID-19k eragindako egoerak irauten duen bitartean.

Guztiok parte hartzera animatzen zaituztegu!

Interesgarria izango delakoan, agur bero bat bidaltzen dizut.

Animo eta gogoratu, elkarrekin hobeak gara!
Agur bero bat.

Leire Peña

APIRILA 07

## NBEak eskuratzeari buruzko jakinarazpena

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*EFEOk norbera babesteko ekipamenduak modu egokian eskuratzeko aukera hobetu eta errazteko egindako kudeaketekin lotutako jakinarazpen ofiziala.*

ikusi jakinarazpena

APIRILA 09

## Normaltasuna itzultzeko plana. EFEOren kontsulta

**NORENTZAT:** Lehendakari, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila

*Normaltasunera itzultzeko planarekin lotutako kontsultak, gobernu-taldeak iturri ofizialetan partekatu zituenak apirilaren 8an.*

APIRILA 10

## Normaltasunera itzultzeko plana jakinaraztea

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Eusko Jaurlaritzak duela gutxi iragarritako normaltasunera itzultzeko planaren proiekzioarekin lotutako jakinarazpen ofiziala.*

ikusi komunikazioa

APIRILA 12

## NBEak eskuratzea

**NORENTZAT:** Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, Osakidetzako Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoen zuzendariordea

*Kolektiboak NBEak errazago eskuratzeko eskaera.*

APIRILA 14

## Orbera Babesteko Ekipamenduen Hornidura Proiekzioa

**NORENTZAT:** Elkargokideak

APIRILA 14

## NBEak eman izana eskertzea

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria

*Elkargoak eskerrak ematea kolektiboari NBEak emateagatik.*

Elkargokide agurgarria:

Atsegin handiz jakinarazten dizut gaur goizean Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza harremanetan jarri dela gure Idazkaritzarekin. Zehazki, adierazi digu onetsi egin dutela Norbera Babesteko Ekipamenduen hornidurarekin lotuta behin eta berriro egin diegun eskaera.

Osasun Sailak jakinarazi digunez, aurrerapenak eta hobekuntzak egon dira martxan dauden asistentzia taldeentzako (ospitaleak, osasun-zentro publikoak…) elementu horien hornikuntzaren egoeran. Hori horrela, badirudi, a priori, stock-en entregak egin ahal izango dizkietela, aldian-aldian, esparru pribatuko profesionalei eta fisioterapia-zentro pribatuei.

Gaur, egunean zehar, Osasun Sailarekin lanean aritu gara, beren aukera logistikoek (kualitatiboak eta kuantitatiboak) eta gure proiekzioak eta beharren balioespenak bat egin dezaten, baita material horiek banatzeko estrategia efikaz eta eraginkorrena adosteko ere.

Gogorarazi behar da, gaur-gaurkoz, eta Sailak behin baino gehiagotan adierazi digun moduan, indarrean jarraitzen duela Euskadiko osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu pribatuetan ematen den asistentzia-jarduera ororen etenaldiak, betiere jarduera hori aldez aurretik programatuta badago eta atzeratu badaiteke. Horrenbestez, premiazkoak diren eta atzeratu ezin diren asistentzia-jarduerak baino ez dira eman behar, eta, kasu horietan ere, norbera babesteko elementuak eskura daudela eta erabiltzen direla bermatu behar da. Hori horrela, bere horretan eusten diogu zenbait baliabide-eskaera lehenesteko gomendio formalari (zeina, nire iritzi apalean, ez ondo azalduta ala ez ondo ulertua beti). Lehentasunezko eskaera horiek dira, batetik, kasu larrietan eman beharreko prestazio eta asistentziarako beharrezkoak direnak, eta, bestetik, pixkanaka normaltasunera itzultzeko (espero dezagun laster izatea) behar izango dugun stock-a pilatzeko estrategiak gauzatzeko beharrezkoak direnak.

Badakigu, Osasun Sailak hala esan digulako, oso positibotzat jo dutela gure kolektiboak eta erakunde honek krisialdian zehar erakutsi duen jarrera ona, alderdi honi eta beste batzuei dagokienez. Ekintza hauek aipatu dizkigute jarrera horren adibide gisa: zuen aurretiazko stock-en borondatezko entrega, abian jarri diren teleasistentziarako eta zerbitzu publikoa emateko estrategiak, eta leheneste-politikak hornidura-gabezia puntualaren aurkako funtsezko elementu gisa ulertzeko eginiko gomendio ofizialak.

Gure gain hartzen dugu fronte garrantzitsu honetan kemenez lan egiteko erantzukizuna, eta espero dugu datozen egunetan zuei ere informazio zehatzagoa eman ahal izatea erabilgarri izango ditugun ekipamenduen, horien kopuruen eta modu efikaz eta eraginkorrean entregatuko direla bermatzeko abian jarriko diren banaketa-mekanismoen inguruan.

Azkenik, aukera hau aprobetxatuz, jakinarazi nahi dizut esparru-dokumentu bat diseinatzen ari garela fisioterapia-asistentzian eta fisioterapia-zentro publiko nahiz pribatuetan transmisio-arriskuak murrizteko eta horietatik babesteko esku-hartze ildo estrategikoak proposatzeko. Laster helaraziko dizugu dokumentu hori, betiere baldintza epidemiologikoek aukera ematen badigute pixkana gure zerbitzuak normaltasunez ematen hasteko.

Emandako informazioa interesatuko zaizulakoan, zure esanetara naukazu. Jaso ezazu agur bero bat.

Adeitasunez,

Roberto Romero



## COfpVID-19 plana

APIRILA 16

**NORENTZAT:** Elkargokideak, CGCFren idazkari nagusia, Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, Zuzendariordetza - Osakidetzako Erizaintzako Aholkularitza, Fisioterapeuten Espainiako Elkarteko Presidentetza

ikusi plana


Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

pLan COfpVID-19

Atención asistencial en Centros de Fisioterapia.

Propuestas de medidas adaptadas

Este documento es avalado por la Asociación Española de Fisioterapeutas(AEF)

AEF

PLAN cofpv DE VUELTA A LA NORMALIDAD

Versión 1° - 16 abril 2020



Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco — Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

# COVID-19

## Equipo de protección personal (EPI) y práctica de Fisioterapia

Esta infografía es una adaptación a la diseñada por la Chartered Society of Physiotherapy destinada a facilitar al colectivo fisioterapeuta una orientación para la toma de una decisión sobre qué Equipos de Protección Individual son recomendables utilizar cuando trabajan en contacto directo (no virtual) con pacientes en cualquier entorno. Desde el COFPV adoptamos el compromiso de desarrollar y difundir su revisión periódica, condicionada a los cambios que determinen el volcado de nuevos datos. Los/as fisioterapeutas deben ejercer su propio juicio clínico al realizar una evaluación de riesgos para determinar el riesgo anticipado / probable de contaminación con salpicaduras y / o gotas de fluidos corporales y, por lo tanto, la necesidad de protección para los ojos.

### 1 Estado del paciente

Debes establecer el estado de tu paciente. Haz esto de forma remota siempre que sea posible.

Por ejemplo:
- Una llamada telefónica de detección (*atención primaria / comunitaria*)
- Traspaso de información entre personal (*pacientes internos*)

**Desconocido**

Si no puedes establecer el estado del paciente y estarás a menos de 2 m de él, debes usar:
- Mascarilla FFP2
- Delantal de plástico
- Guantes

**NO caso COVID-19 actual o confirmado y la atención se realiza a menos de 2m**

Debes usar guantes y delantal de plástico en todo momento y gel desinfectante en función del riesgo, así como mascarilla FFP2 y protección ocular.

En caso de realizar algún procedimiento que genera aerosoles (AGP) que incluye o induce tos:
- Máscara FFP3
- Bata resistente a fluidos
- Protección ocular
- Guantes

**COVID-19 diagnosticado o sospechado**

El alcance del EPI requerido depende de la necesidad de consulta, la intención del tratamiento y el entorno del tratamiento.

Sigue el diagrama de flujo para obtener más información.

¿Qué EPI necesita el paciente?
- La mascarilla quirúrgica resistente a los fluidos la debe usar en áreas de espera clínicas y comunitarias y durante los traslado si la tolera y no compromete la atención.

**Personas vulnerables protegidas (ya sea paciente O un miembro del hogar del mismo) en cualquier entorno**
- Máscara quirúrgica
- Delantal de plástico
- Guantes

Si realiza algún procedimiento de generación de aerosoles (AGP):
- Máscara FFP3
- Bata resistente a fluidos
- Protección ocular
- Guantes.

### 2 Necesidad de consulta

¿Por qué es necesaria la intervención de Fisioterapia?

**Tratamiento urgente y / o esencial**
- ¿Es posible una consulta virtual?

**Tratamiento de rutina y / o no esencial**
- Tratar usando consultas digitales virtuales
- No se requiere EPI.

**Si** — No se requiere EPI

**No** — El EPI requerido dependerá del tipo y entorno del tratamiento

### 3 Intención de Tratamiento

¿Cuál es el propósito de su intervención de Fisioterapia?

**Fisioterapia respiratoria que incluye AGP y / o inducen tos en cualquier entorno**
- Máscara FFP3
- Bata resistente a fluidos
- Protección ocular
- Guantes.

**Cualquier otro tipo de tratamiento o rehabilitación**
- ¿El tratamiento realizado incluye AGP y / o induce tos en paciente?

**Sí, en cualquier entorno**
- Máscara FFP3
- Bata resistente a fluidos
- Protección ocular
- Guantes

**No: para atención brindada a menos de 2 m**
- Mascarilla FFP2
- Delantal de plástico
- Protección ocular
- Guantes

### 4 Entorno de Tratamiento

¿Dónde se realiza el tratamiento?

**Áreas de alto riesgo hospitalario:**
- **UCI**
- **RCP**
- **Salas que usan VNI* o AGP**

- Máscara FFP3
- Bata resistente a los fluidos (sesión) y delantal de plástico (un solo uso)
- Protección ocular
- Guantes

**UCIs y otras áreas de pacientes hospitalizados con COVID-19**

A menos de 2m y sin AGP
- Gel Desinfectante
- Mascarilla FFP2
- Delantal de plástico
- Protección ocular
- Guantes

Más de 2m
- Gel Desinfectante
- Mascarilla FFP2
- Evaluación de riesgos para protección ocular

**Hogar de pacientes donde cualquier miembro es diagnosticado o sospechoso COVID-19; residencias, centros de salud mental para pacientes hospitalizados, otros centros de atención nocturna con casos confirmados:**

A menos de 2m y sin AGP
- Mascarilla FFP2
- Delantal de plástico
- Evaluación de riesgos para protección ocular
- Guantes

**At. primaria ambulatoria, at. comunitaria y centros sociosanitarios**

A menos de 2m y sin AGP
- Mascarilla FFP2
- Delantal de plástico
- Guantes

*VNI: Ventilación - No Invasiva

**A 16 de abril de 2020**

TRADUCCIÓN DE LA FUENTE: https://www.csp.org.uk/news/coronavirus/clinical-guidance/ppe-faqs (punto 3)

APIRILA 17

## Telelaguntza-programa

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria, Vitoria-Gasteizko Udaleko Osasun Publikoko Unitateko arduradun teknikoa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari-gerentea, Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saileko zinegotzi ordezkaria , Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru-diputatua, Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako zuzendaria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua, Irungo Udaleko Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Saileko arduraduna, Errenteriako Udaleko Herritartasun batzordeburua , Laudioko Udaleko Gizarte Ongizate, Lankidetza eta Osasun Zuzendaritza , Amurrioko Udaleko Kirol, Osasun eta Hezkuntza zinegotzia , Durangoko Udaleko Gizarte Ekintza eta Enplegu Arloko Zuzendaritza , Mungiako Udaleko Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloko Zuzendaritza

*Herritarren artean telelaguntza-programa hedatzeko eskaera.*

APIRILA 17

## Lehenengo NBEak jasotzen hasi ginen. 3400 kg itxaropen

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Elkargokideentzako babes-materiala elkargoaren egoitzara iristen hasi da.*





APIRILA 21

## NBEak eskatzeko inprimakia

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Elkargoaren erroldari norbera babesteko ekipamenduak eskatzeko beharrezko formularioa bidaltzea.*

APIRILA 23

## Osasun Lanbideen Kontseilu Orokorren baterako jakinarazpena

**NORENTZAT:** Elkargokideak

ikusi jakinarazpena

APIRILA 23

## EFEOko presidentearen jakinarazpen ofiziala

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria

*"Fisioterapia-jardueran berrantolaketa arreta goiztiarrean COVID-19ak eragindako osasun-krisia jorratzeko" dokumentua, Fisioterapeuten Espainiako Elkartearen Arreta Goiztiarraren eta Komunitate Osasunaren Batzordeak diseinatua.*

ikusi dokumentua

APIRILA 24

## Gozatu Fisioterapiako I. Jardunaldi Mediterraneoaz, doan

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Sareko jardunaldietan parte hartzeko jarraibideak.*

APIRILA 24

## Jakinarazpena

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*"Lehen mailako arretan Fisioterapia-jardueraren berrantolaketa COVID-19ak eragindako osasun-krisia jorratzeko"* dokumentuaren berri eman da.

APIRILA 24

## Irizpide tekniko-juridikoari buruzko txostena 2020ko apirilaren 24a

ikusi txostena

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Txosten juridikoa eta eranskinak, premiazkotzat edo atzeraezintzat identifikatutako arreta-eskaeren laguntza-zerbitzuen prestazioarekin lotutako bateragarritasunari buruzko balorazio juridikoari, eta aldi baterako lan-erregulazioko espedienteen (ABLEE) eta/edo jarduera-etetearen egoeraren indarraldiari dagokionez.*

APIRILA 27

## NBEak banatzen hastea

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Garraio-enpresa materiala jasotzen eta eskatzaileei eramaten hasi da.*

APIRILA 29

## Premiazko jakinarazpena

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Gobernuak hedatutako "Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren" analisia.*

MAIATZA

01

## Arnas Fisioterapiaren Dekalogoa Covid-19 duten Pazienteetan

NORENTZAT: Elkargokideak

*Lankide batzuek idatzitako dokumentua, COVID-19a duten eta berreskuratze eta ospitale-altaren fasean dauden pazienteen arnasketa-fisioterapiaren esku-hartzeei buruzkoa.*

MAIATZA

02

## EFEOk banatutako NBE-en baliozkotasunari eta ziurtagiriari buruzko kezkak

NORENTZAT: Elkargokideak

*EFEOk entregatutako NBE-en fidagarritasunari begira sortutako kezkak argitzeko helburua duen azalpen-erantzuna.*

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

*EFEOak BANATU DITUEN NBEn BALIO ETA EGIAZTAPENARI BURUZKO KEZKAK*
INQUIETUDES SOBRE LA VALIDEZ Y CERTIFICACIÓN EPIS DISTRIBUIDOS POR COFPV


*CE zertifikatua tramitean*
Certificado CE en trámite


*EFEO 1. Eredua*
Modelo 1 COFPV



*EFEO 2. Eredua*
Modelo 2 COFPV


*EFEO 3. Eredua*
Modelo 3 COFPV


*1. KENTZEA*
RETIRADA 1


*2. KENTZEA*
RETIRADA 2

*Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala*
C/ Ibarrekolanda, 15 - 48014 Bilbao
cofpv@cofpv.org

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Tel.: 944 020 155
www.cofpv.org

MAIATZA

03

## Premiazko jakinarazpena BOEn

NORENTZAT: Elkargokideak

*Maiatzaren 3ko SND/388/2020 Agindua argitaratu zen BOEn, eta ofiziala egin zen Fisioterapiako zentroetan asistentzia-jarduera berriz irekitzeko eta berrabiarazteko aukera, maiatzaren 4ko 00: 00etatik aurrera, eta larrialdi-esparruan betetzen ari ziren zerbitzuak emateaz haratago.*

MAIATZA

03

## NBE-ei buruzko galderen bankua

NORENTZAT: Elkargokideak

ikusi dokumentua

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

# ARNASKETA-FISIOTERAPIAREN ESKU HARTZEAK COVID-19a DUTEN PAZIENTEENGAN, SENDATZEAREN ETA OSPITALE-ALTAREN FASEAN

Gomendio hauek COVID-19aren pandemia dela-eta etxean konfinatuta dauden edo etxeko sendatze-fasean dauden pertsonei daude zuzenduta. Arnasketa-fisioterapia funtzionalaren tratamendua isolamenduaren 14 egunak igaro ondoren hasiko litzateke, betiere koadro klinikoa erabat konpondu bada. Gomendio orokorrak dira, eta, haiek alde batera utzita, zorroztasunez jarraitu behar zaie beti jarraipenaz arduratzen den talde medikoaren jarraibideei. Inola ere ez zaie gomendio horiei jarraitu behar sintomak izanez gero, ezta, ospitaleratze-kasuan, altaren aurretik ere.

Mugikortasun-faltak eragin zuzena du indar muskularrean eta bihotz-biriketako gaitasunean. Gure gorputzeko gainerako muskuluen moduan, arnasketa-muskuluak zuntz muskularrez daude osatuta, eta entrenatu daitezke indarra eta erresistentzia hobetzeko.

### Hauek dira fisioterapiako jorraketaren helburu nagusiak:

- *Aireztatze-patroia hobetzea*
- *Diafragma- eta saihets-mugikortasuna handitzea*
- *Disnea- edo neke-sentsazioa murriztea*
- *Jariatzeak kanporatzea erraztea*
- *Erresistentzia bronkialak eta arnasketa-lana murriztea*
- *Birika-konplikazioak prebenitzea*
- *Gaitasunen galera ekidin edo berreskuratzea*
- *Indarra, erresistentzia eta ariketarekiko tolerantzia hobetzea*
- *Bizi-kalitatea hobetzea*

COVID-19aren bigarren mailako arnasketa-prozesu arin/moderatua duten pazienteen kasuan, epe laburreko helburua baldintza fisiko eta psikologikoak pixkanaka berrezartzea izango da. Horretarako, ariketa aerobikoa gomendatzen da, ospitaleratu aurreko gaitasuna berreskuratzeko.

Prozesu larri/kritikoa gainditu duten pazienteen kasuan (ondorioak hauek izan daitezke: desegokitzapen fisikoa, ariketaren aurreko bigarren mailako disnea eta atrofia muskularra), arnasketa-fisioterapiaren esku-hartze nagusiak honako hauetan oinarrituko dira: pazientearen heziketa, ariketa aerobikoa, indar- eta entrenamendu-ariketak, jariatzeak drainatzeko teknikak eta aireztapen-teknikak (pazientearen manifestazio klinikoek eskatzen badute).

## 1 IRIZPIDE NAGUSIAK

- Ariketa fisikoa azken otordutik ordu bat edo bi igaro ondoren egin behar da (eta otordua ez izatea oso betegarria).
- Estutzen ez duen arropa erosoa erabiliko dugu, baita oinetako itxiak ere.
- Jarduerarako ingurunea egokituko dugu: lurreko edozein elementu kenduko da.
- Jarduerak aulki batean eserita egingo dira. Etzanda egin behar diren ariketak ohean edo lurrean egingo ditugu (pertsona bakoitzaren egoeraren arabera), eta kuxin bat ipin daiteke buruaren azpian.
- Erabiliko den materiala: baso bat ur, ezpainak busti behar badira, paperezko musuzapiak (erabili eta botatzekoak) eta plastikozko poltsa bat. Espektoratuz gero, mukia hartuko da, paperean bilduko da eta zuzenean plastikozko poltsan ipiniko da.
- Jarduera amaitu ondoren, eskuak ondo garbitu behar dira, eta gela 5-10 minutuz aireztatu behar da. Espektoratuz gero, gomendagarria da inguruko gainazal guztiak garbitzea, plastikozko poltsa ixtea eta arropaz aldatzea.
- Tratamendua berehala etengo da tenperatura 37 gradutik gorakoa bada, arnasketa- eta neke-sintomak ez badira desagertzen atsedenarekin, bularreko opresioa sentitzen bada edo eztula larria, buruko mina, izerditzea, ezegonkortasuna edo zorabioa sentitzen badira.

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

ARNASKETA-FISIOTERAPIAREN ESKU HARTZEAK COVID-19a DUTEN PAZIENTEENGAN, SENDATZEAREN ETA OSPITALE-ALTAREN FASEAN

## 2 JARIATZEAK DRAINATZEKO TEKNIKAK ETA AIREZTAPEN-TEKNIKAK

Egunean 2 edo 3 aldiz errepikatu daitezke. Ariketa bakoitza 5 minutuz egingo da.

### 1 Diafragma-arnasketa

Eskuak sabelaldean ipinita, motelki hartuko dugu arnasa, airea sabelaldera zuzenduz (altxa egingo da).
Aireari eutsiko diogu 3 segundotan, eta ondoren motelki botako dugu ezpainak zimurtuta, kandela bat itzaltzean bezala. Espirazio-denbora inspirazio-denbora baino luzeagoa izan behar da.

Ariketa honela egin daiteke:

- Buruz gora etzanda, burko txiki batekin buruaren azpian eta kuxin handi batekin belaunen azpian, horiek tolestuta mantentzeko.
- Aulki batean eserita, bizkarra ondo bermatuta eta oinak apur bat banatuta.
- Aulki batean eserita, besoak eta burua mahai baten gainean bermatuz.





### 2 Saihets-espantsioaren arnasketa

Buruz gora etzanda eta hankak tolestuta jarriko gara, edo aulki batean eserita. Eskuak saihetsen beheko zatian ipiniko ditugu. Motelki arnasa hartu eta airea eskuetarantz bideratuko dugu (saihetsak kanpora eta goraka irekiko dira). Aireari eutsiko diogu bi edo hiru segundoz, eta, arnasa botatzean, eskuekin presionatuko ditugu arinki saihetsak, mugimenduari lagunduz airea botatzeko. Espirazio-denbora inspirazio-denbora baino luzeagoa izan behar da.

Ariketa errepikatuko dugu alde batera etzanda, hankak tolestuz eta belaunen artean burko bat ipiniz. Goiko eskua sabelaldean ipinita, arnasa arinki hartuko dugu, airea goiko saihetsera zuzenduz, eta, arnasa botatzean, arinki presionatuko dugu.

Ondoren, gauza bera egingo dugu beste aldearekin.





**Irudiak Madrilgo Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak emandakoak dira.*

# ARNASKETA-FISIOTERAPIAREN ESKU HARTZEAK COVID-19a DUTEN PAZIENTEENGAN, SENDATZEAREN ETA OSPITALE-ALTAREN FASEAN

## 2 JARIATZEAK DRAINATZEKO TEKNIKAK ETA AIREZTAPEN-TEKNIKAK

### 3 Espirazio-ariketak espirazio-presio positiboarekin

Arnasa hartuko dugu arinki sudurretik eta 2 edo 3 segundoz mantenduko dugu; ondoren, arnasa botako dugu arinki urez betetako baso batean sartuko dugun lasto batekin putz eginez (burbuilak sortzeko). Ariketa horrekin ondoren eztularekin kanporatuko ditugun jariatzeak hurbiltzen dira.
Espirazio-denbora inspirazio-denbora baino handiagoa izan behar da.








### 4 Espirazio motelak egingo ditugu, ahoa zabalik.

Ariketa horrek lagunduko ditu biriketan "sakonago" egon daitezkeen jariatzeak ahotik gerturago ekartzen, gero eztularen bidez kanporatzeko. Astiro hartu eta botako dugu arnasa ahora irekita dugula, kristala lausotu nahiko bagenu bezala.

Ariketa azalera lau batean alboka etzanda edo aulki batean eserita egin daiteke. Hala ere, ariketan zehar eztula egin behar badugu jariatze bat kanporatzeko, gomendagarriena eseri, arnasa sakon hartu eta eztul egitea da. Horretarako, behin erabiltzeko musuzapi bat jarriko dugu aho aurrean, eta erabili ondoren poltsa batean sartuko dugu.

*Irudiak Madrilgo Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak emandakoak dira.

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
ARNASKETA-FISIOTERAPIAREN ESKU HARTZEAK COVID-19a DUTEN PAZIENTEENGAN, SENDATZEAREN ETA OSPITALE-ALTAREN FASEAN

## 3 ARIKETA AEROBIKOA ETA INDARRAREN ENTRENAMENDU PROGRESIBOA

**Indarraren entrenamendu progresiborako, 1-3 muskulu-talderekin lan egitea gomendatzen da (adibidez, besoetako ariketa bat, hanketako bat eta ariketa orokor bat konbinatzea), 8-12 errepikapeneko kargarekin; eta karga hori % 5-10 igotzea aste bakoitzean.**

### 1 Sentadillak

Aulki batetik jaiki eta berriro eseriko gara. Horretarako, oinen artean tarte pixka bat utziko dugu, belaunak lerrokatuta jarri eta besoak aurrerantz luzatuko ditugu (behar badugu, eskuak izterren gainean edo azaleraren baten gainean jar ditzakegu.).

Ariketaren intentsitatea igotzeko, sentadillak egin ditzakegu baina aulkian esertzera iritsi gabe. Beste aukera bat ere izan daiteke sentadilla-posizioan jartzea bizkarra hormaren kontra jarrita. 10-12 errepikapen egin ditzakegu kasu horietan.





### 2 Besoak

Besoak aurretik altxatuko ditugu, arnasa hartzen dugun bitartean, kutxa torazikoa zabaltzeko; ondoren, besoak jaitsiko ditugu, arnasa botatzen dugun bitartean. Eserita edo zutik egin daiteke ariketa hori.

Horrez gain, halterak, latak, ur-botilak, esne-brikak edo etxean daukagun beste edozer erabil daiteke karga erregulatu eta areagotzeko.

Halaber, ariketa bera egin daiteke besoak aurrerantz luzatu ordez alboetarantz eginez (minik gabe), baita bi aukerak txandakatuta ere.





Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
ARNASKETA-FISIOTERAPIAREN ESKU HARTZEAK COVID-19a DUTEN PAZIENTEENGAN, SENDATZEAREN ETA OSPITALE-ALTAREN FASEAN

## 3 ARIKETA AEROBIKOA ETA INDARRAREN ENTRENAMENDU PROGRESIBOA

Oro har, gomendio hauei jarraituko zaie:

- Denbora luzez eserita edo mugitu gabe egotea saihestea.
- Egunero ariketa egitea. 20-30 minutuko saioak.
- Egunean zehar likidoa maiz edatea.
- Ariketetan zehar, arnasa-erritmo normala mantentzea, ez nekatzeko modukoa. Intentsitate arin-moderatuko ariketa egitea (lanean jartzen ditugun muskuluak edo arnasa hartzeko zailtasun-sentsazioak Borg eskalaren 3. mailan egon behar luke hasieran, eta pixkanaka 5.eraino igotzen joan).




**Entrenamendu aerobikoari dagokionez, ariketa hauek gomendatzen dira: ibiltzea, arin ibiltzea, trostan ibiltzea, bizikleta estatikoa... Eta horiek egin ezin baditugu, beste hauek:**

### A Martxa estatiko leuna

Intentsitate txikiko martxa eta intentsitate handiagokoa tartekatuko ditugu. Lekuan ibiliko gara, oinak lurretik pixka bat altxatuz, 30 segundoz. Gero, eskuineko belauna altxatuko dugu (aldakaren mailan) eta ezkerreko eskuarekin ukituko dugu, edo egin badezakegu, zaplada bat emango dugu hankaren azpitik. Ondoren, beste belauna altxatuko dugu beste 30 segundoz, eta seriea errepikatuko dugu 3-5 minutuz.





### B Martxa moderatua

Salto txikiekin hasiko gara, oinak aurrera eta atzera eramanez, txandaka, eta aurkako eskuarekin ere lagunduz. Ondoren, hankak eta besoak artazi-moduan irekiko ditugu 30 segundoz, eta seriea errepikatuko dugu 3-5 minutuz.





Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
ARNASKETA-FISIOTERAPIAREN ESKU HARTZEAK COVID-19a DUTEN PAZIENTEENGAN, SENDATZEAREN ETA OSPITALE-ALTAREN FASEAN

## 3 ARIKETA AEROBIKOA ETA INDARRAREN ENTRENAMENDU PROGRESIBOA

**Indarraren entrenamendu progresiborako, 1-3 muskulu-talderekin lan egitea gomendatzen da (adibidez, besoetako ariketa bat, hanketako bat eta ariketa orokor bat konbinatzea), 8-12 errepikapeneko kargarekin; eta karga hori % 5-10 igotzea aste bakoitzean.**

### 3 Flexioak hormaren kontra

Besoak hormaren kontra jarriko ditugu, 90º-ko angeluan (inoiz ez gorago); ondoren, bularra hormarantz hurbilduko dugu, ukondoak tolestuz; eta, azkenik, eskuekin hormaren kontra egingo dugu indarra, hasierako posiziora itzultzeko.

Ariketaren intentsitatea handitu egingo da oinak hormatik urrunago jartzen ditugun neurrian.





### 4 Enborra

Erratz-makila bat jarriko dugu buruaren gainetik eta arnasa hartuko dugu, eta ondoren, arnasa bota ahala, enborra inklinatuko dugu alde baterantz. Jarraian, hasierako posiziora itzuliko gara arnasa berriz hartuz, eta prozesu bera errepikatuko dugu beste alderantz.

Pisuak ere erabil ditzakegu.







Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

# ARNASKETA-FISIOTERAPIAREN ESKU HARTZEAK COVID-19a DUTEN PAZIENTEENGAN, SENDATZEAREN ETA OSPITALE-ALTAREN FASEAN

3 ARIKETA AEROBIKOA ETA INDARRAREN ENTRENAMENDU PROGRESIBOA

**Indarraren entrenamendu progresiborako, 1-3 muskulu-talderekin lan egitea gomendatzen da (adibidez, besoetako ariketa bat, hanketako bat eta ariketa orokor bat konbinatzea), 8-12 errepikapeneko kargarekin; eta karga hori % 5-10 igotzea aste bakoitzean.**

## 5 Zubia

Lurrean etzanda egingo dugu, belaunak tolestuta; arnasa hartu, eta hori botatzean ornoz orno altxatuko dugu gorputza, ipurdia sabairantz eramanez. Arnasa bota eta hasierako posiziorantz itzuliko gara pixkanaka.

Intentsitatea areagotzeko, ipurdia igo eta posizio horretan geratuko gara 5-10 arnasalditan.





## 6 Ariketak lau hankan

Lau hankan jarri eta beso bat garondora eramango dugu; ondoren, arnasa hartzen dugun bitartean, ukondoa sabairantz eramango dugu, kutxa torazikoa zabalduz. Azkenik, hasierako posiziora itzuliko gara.

Beso batekin hasi eta bestearekin jarraituko dugu. Belauniko ezin badugu, aulki batean eserita ere egin dezakegu. Horretarako, eskuak garondoaren atzean elkartu, arnasa hartu, eta, bota bitartean, ukondoa eraman dezakegu aurkako belaunerantz, ukitu arte.





MAIATZA 04

## Banatutako NBE-en baliozkotasunari eta PCR probei buruzko kontsulta

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria

*EFEOk emandako norbera babesteko ekipoen (NBE) fidagarritasuna berresteko eskaera.*

MAIATZA 05

## Joan-etorrien ziurtagirien proposamena

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Joan-etorrien ziurtagiriei buruz elkargoek eginiko proposamenak, herritarren mugikortasunean mugak ezartzeko oraindik indarrean dauden neurrien aurrean.*

ikusi ziurtagiriak

MAIATZA 06

## Banatutako NBE-en baliozkotasuna

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria

*Ezinegona NBE akastunak erretiratzeko informazio-ezagatik.*

MAIATZA 06

## Maskarei buruzko premiazko jakinarazpena

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Material akastuna botatzeko EFEOk bidalitako oharra.*




















Garry Galaxy "verdes" (únicamente lote terminado en 401 es válido)



Lanxiang ES906







Atención: ésta indica N95






MAIATZA 06

## Premiazkoa gaia: NBEak

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Osasun Sailaren azalpenak material akastunak direla-eta sentitzen dugun ezinegonaren aurrean, eta Elkargoaren azalpenak material hori berrezartzea ezinezkoa delako.*

MAIATZA 12

## COfpVID-19 planaren 2. bertsioa. EFEOren normaltasunera itzultzeko plana

**NORENTZAT:** Elkargokideak, CGCFren idazkari nagusia, Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, Zuzendariordetza - Osakidetzako Erizaintzako Aholkularitza, Fisioterapeuten Espainiako Elkarteko Presidentetza

*Elkargoaren planaren bigarren bertsioa bidali zen, bai eta haren abalaren eskaera ere, Fisioterapeuten Espainiako Elkarteak egina.*

ikusi plana

MAIATZA 12

## UNESPAn sartu izana eskertzea

**NORENTZAT:** Euskadiko SATSEko Idazkaritza Teknikoa, Euskadiko SATSEko idazkari nagusia

*Esker ona gure fisioterapeutaren kolektiboa COVID-19 aseguramendu eta estaldura bereziko planean sartzeko Satsek egindako eskaera formalagatik.*

MAIATZA 12

## Telelaguntza-programari esker ona

**NORENTZAT:** Elkargokide parte-hartzaileak

*Elkargoaren esker ona telelaguntza-programan parte hartzeagatik.*

MAIATZA 13



## Doako ikastaroa: Fisioterapia ZIUn

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Egungo egoera dela eta, doako ikastaro bat jarri zen abian, bereziki publikoan lan egiten duen kolektiboarentzat, zainketa intentsiboetako unitateetako (ZIU) lanean espezializatzeko.*


Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

# pLan COfpVID-19

**Atención asistencial en Centros de Fisioterapia.**

Propuestas de medidas adaptadas

Este documento es avalado por la Asociación Española de Fisioterapeutas(AEF)

AEF

PLAN cofpv DE VUELTA A LA NORMALIDAD

Versión 2ª - 11 mayo 2020

MAIATZA 15

## Material-hornitzaileak

ikusi atala

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Webgunean atal bat sortzea enpresekin, kolektiboarentzako salmenta-baldintza hobetuekin, hornitzaileekin (NBEak, euste-altzariak, seinaleak, desinfektatzaileak eta higiene-produktuak).*

MAIATZA 18

## Bizkaiko Psikologia Elkargoari inkesta egiten laguntzeko eskaera

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Lankidetza eskatzea inkesta bat egiteko, COVID-19ak eragindako pertsonei zuzeneko arreta ematen diharduten osasun-zentro eta ospitaleetako profesionalen osasunaren pertzepzio subjektiboa ezagutzeko*

MAIATZA 19

## COVID-19a duten pazienteen afekzioarako fisioterapia eguneratzeko ikastaroa

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*CGCFren doako ikastaroan parte hartzeko moduari buruzko informazioa*

MAIATZA 19

## Profesionalentzako informazioa

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, Zuzendariordetza - Osakidetzako Erizaintzako Aholkularitza, OSI Bilbao - Basurto Gerentzia

*Bilbo-Basurtu ESIak zabaldutako "Deseskaladarako eta NBEak COVID EZ diren pazienteekin erabiltzeko protokoloa/gidari" buruzko kezkak; izan ere, bertan jasotako gomendio tekniko batzuk ez-egokitzat edo irizpide desegokietan oinarritutakotzat jo dira.*

MAIATZA 20

## BEZa kontsultatzea

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzako Koordinazio eta Finantza Zuzendariordetza, Gipuzkoako Foru Ogasuna, Arabako Foru Ogasuna, Bizkaiko Foru Ogasuna

*Eskaera, 15/2020 Legegintzako Errege Dekretuak ezartzen duen BEZaren salbuespenean osasun-zentroak sar daitezkeen argitzeko, gure kolektibo profesionalari jakinarazteko, salbuespena aktibatzeko neurri egokiak har ditzan, Errege Dekretu horretan jasotako produktuetan fakturatutako eta fakturatu daitezkeen erosketei aplikatzeko.*

MAIATZA 20

## OHARRA Deseskalada-plana NBE-ez COVID sare publikoan.

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*Ikastetxeko zuzendaritzek banatu dituzten jakinarazpen ofizialei eta "gidak/protokoloak" dokumentuei buruzko kezkak.*

ikusi edukia

MAIATZA 26

## II. edizioa: COVID-19a duten pazienteen afekzioarako fisioterapia eguneratzeko ikastaroa

**NORENTZAT:** Elkargokideak

*CGCFren doako ikastaroan parte hartzeko moduari buruzko informazioa.*

EKAINA 02

## Arabako ESIaren Fisioterapia taldearen dibulgazio-bideoaren aintzatespena

**NORENTZAT:** Zuzendariordetza - Osakidetzako Erizaintzako Aholkularitza

*Esker on formala fisioterapiak osasun-krisian egindako lanari buruzko dibulgazio-bideoagatik.*

EKAINA 03

## UNESPA funts solidarioa

**NORENTZAT:** Zuzendariordetza - Osakidetzako Erizaintzako Aholkularitza

*Estatuko lurralde osoan COVID-19aren aurka lehen lerroan borrokatzen diren ospitaleetako eta adinekoen egoitzetako osasun-profesionalak babesteko 38 milioi euroko funts solidarioa osatzeari buruzko informazioa.*

EKAINA 05

## PREMIAZKO kontsulta: praktika hezigarri-sanitarioa ariketa terapeutikoarekin

**NORENTZAT:** Eusko Jaurlaritzako Koordinazio eta Finantza Zuzendariordetza

*Talde-esparruan (hala nola, taldeko ariketa terapeutikoko saioak, gimnasia abdominal hipopresiboa, erditze osteko osatzea) fisioterapiako saioak egiteko eta garatzeko araudi lotesleari buruzko kontsulta.*

EKAINA 08

## Taldeko Arreta Fisioterapeutikoaren jakinarazpena

ikusi edukia

**NORENTZAT:** Elkargokideak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

*Kontsulta-eskaera honako honi buruz: ea egokia den gure kolektiboari helaraztea modu loteslean normalizazio- eta deseskalada-prozesuan jarraitzea gidatuko duen orientazio- eta erregulazio-irizpideen zerrenda, bertan joko baita onargarritzat talde-esparruan laguntzari ekitea eta laguntza-arretaren ratioa handitzea.*

EKAINA
12

## Arreta eta aurrez aurreko zerbitzuak berrabiaraztea Elkargoaren egoitzan

NORENTZAT: Elkargokideak

*EFEOk aurrez aurreko jarduera berrabiarazi du.*

EKAINA
17

## Euskadiko fisioterapeuta kolektiboaren seroprebalentziaren azterlana

NORENTZAT: Elkargokideak

*Lankidetza-hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin batera, COVID-19aren arrisku-maila handia duten kolektiboentzako seroprebalentziari buruzko makroazterketaren proiektuarekin bat egiteko. Proiektu horren bidez, hala nahi duten elkargokideek doako probak egin ditzakete, eta COVID-19aren identifikazioa eta diagnostikoa egin dezakete, test serologikoen eta PCRen bidez.*

EKAINA
23

## COVID-19aren aldiko elkargoaren kuotak. EFEOko Gobernu Batzordearen erabakia

NORENTZAT: Elkargokideak

*Behin-behinean eten da bigarren seihilekoko kuotaren ordainagiria igortzea.*

UZTAILA
20

## BEZa ordaintzetik salbuesteari buruzko zalantzak

NORENTZAT: Elkargokideak

*Kezka Ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 8. artikulua interpretatzeari dagokionez.*

ikusi edukia

ABUZTUA
18

## Premiazko jakinarazpena: jarduera eteteko ebazpenak

NORENTZAT: Elkargokideak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria, Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, Zuzendariordetza - Osakidetzako Erizaintzako Aholkularitza

*Agintari eskudunei egindako gogoetak, azken egunotan jasotako kezka eta kexei buruz. Kezka eta kexa horiek lotuta daude fisioterapia-zentro pribatuen jarduera eteteko eta haiek nahitaez ixteko ebazpenekin.*

Elkargokide agurgarriak:

Azken egunetan hainbat kezka eta kexa jaso ditugu COVID-19aren aztarnarien taldeek hainbat fisioterapia-zentro eta -jarduera ixtea edo etetea agindu dutela eta; izan ere, identifikatu da SARS-Cov-2 birusa duten (ustez edo baieztatuta) zenbait pertsonari arreta eman zaiela zentro horietan. Dena den, zentro horiek ixteko argudio bakarra emandako arreta "gertuko kontaktu" gisa identifikatzen dela da. Hori horrela, gaur goizean gogoeta hauek helarazi dizkiegu formalki hainbat agintaritza eskuduni:

- Fisioterapia-jarduera funtsezko osasun-jardueratzat jotzen du martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, osasun-krisialdiko egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuenak.
- Oro har, Euskadiko fisioterapeutek erantzukizun osoz gauzatzen dute beren lana, eta zehatz-mehatz betetzen dituzte Euskadin indarrean dauden pazienteen segurtasunerako irizpideak.
- Osasun-krisialdi honen aparteko ezaugarriak kontuan hartuta, eta ezohiko neurri gisa, hainbat prebentzio- eta euste-estrategia eta -protokolo ezarri dira modu masiboan eta onarpen orokorrarekin; neurri horiek erakunde ofizialen oniritzia eta abal zientifikoa jaso dute, eta horien esparru-dokumentua nazioarteko aitorpena jasotzen ari da, ospitale, unibertsitate eta zentro soziosanitarioetako erreferentziazko elementu gisa erabil dadin (https://www.cofpv.org/PLAN_COFPVID.pdf).
- Esparru orokor horretan, fisioterapia-zentroak ixtea eta jarduera nahitaez etetea dakarren "gertuko kontaktu" arriskutsuaren ideia hori interpretazio-akats baten ondorio da, argi eta garbi, eta ez dator bat Osasun Ministerioak ekainaren 8an argitaratutakoarekin (https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/PrevencionRRLL_COVID-19.pdf). Izan ere, Osasun Ministerioaren dokumentu horren arabera, prebentzio- eta babes-baldintza egokietan gauzatzen diren osasun-jarduerak ez dira identifikatu behar "gertuko kontaktu" arriskutsu gisa, horietan beharrezko babes-neurri guztiak hartzen baitira.

Uste dugu zentroak ixteko ebazpen horiek oker hartutako erabaki partikularren ondorioz sortu direla, eta ez datozela bat aztarnarien taldeak koordinatzen dituen erakundeak adostutako irizpideekin. Hori dela eta, eskumeneko agintaritzei eskatzen diegu irizpide bateratuak ezartzeko eta horiek kontrolatu eta gainbegiratzeko mekanismoak sor ditzatela, neurri zentzugabeak har daitezela saihesteko. Izan ere, halako neurriak hartzeak murriztu egiten du herritarren osasunerako eskubidea eta ondare-kalte izugarria dakar, irizpide okerrak aplikatuz gero erantzukizun zibilak sorraraz ditzakeena.

Guk konpromiso handiz lanean jarraituko dugu gure erabiltzaileen segurtasuna zaintzeko eta gure kolektibo profesionalaren eskubideak babesteko, eta adi egongo gara atzo onartutako osasun-larrialdiaren testuinguru berrian onartzen diren osasun-arloko estrategia eta politika guztiak errespetatzeko.

Besterik gabe, interesgarria izango zaizuelakoan, agur bero bat.

Roberto Romero




Formación especializada para Profesionales

ESCUELAS UNIVERSITARIAS GIMBERNAT-CANTABRIA
www.eug.es

**MÁSTER UNIVERSITARIO EN AVANCES EN NEURORREHABILITACIÓN DE LAS FUNCIONES COMUNICATIVAS Y MOTORAS**
(Acreditado por la ANECA) 6ª Edición
Modalidad: semipresencial
10 seminarios de noviembre 2020 a mayo de 2021

**MÁSTER UNIVERSITARIO EN FISIOTERAPIA DEL DEPORTE Y READAPTACIÓN A LA ACTIVIDAD FÍSICA**
(Acreditado por la ANECA) 2ª Edición
15 seminarios de septiembre 2020 a junio de 2021

- Abordaje Respiratorio del Enfermo Neurológico
- Gimnasia Abdominohipopresiva. Nivel 1
- Dolor Neuromuscular y su Abordaje con Fisioterapia Invasiva
- Bases de la Alimentación, Nutrición Humana y Dietética: Aplicación en Fisioterapia
- Ecografía Práctica
- Fisiosexología
- Principios de Exploración, Tratamiento y Manejo de los Trastornos Neuro-músculo-esqueléticos
- Nutrición y Dietética Aplicada, Soporte Vital
- Fisioterapia en Disfunciones Digestivas y Coloproctología

#masqueunaescuela

EUGimbernat @EUGimbernat

C/ Aurelio García Cantalapiedra, s/n
39316 Tanos - Torrelavega (Cantabria)
Telf. 942 801 650 - 942 801 648
fisio.tor@eug.es

ABUZTUA 19

## Covid-19 Zaintza eta Kontrol Koordinazio Zentroaren erantzuna

NORENTZAT: Elkargokideak

ABUZTUA 21

## Elkargoaren egoitza ixtea

NORENTZAT: Elkargokideak

*Asistentzia-jarduera etetea elkargo-egoitzan, prebentzio-isolamendua dela-eta.*

AGOSTO 31

## Aurrez aurreko arreta berrabiaraztea

NORENTZAT: Elkargokideak

*Osasun-agintariek eskatutako denbora-tartearen ondoren, aurrez aurreko zerbitzua berrabiarazten da elkargoaren egoitzan.*

URRIA 01

## Detekzio goiztiarrerako protokoloa

NORENTZAT: Elkargokideak

*Lankidetza COVID-19aren zaintza aktiboko eta detekzio goiztiarreko sareari bulkada gehigarri bat emateko.*

ikusi protokoloa

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala



**Euskadiko fisioterapia-unitate eta -zentroen erabiltzaileen artean SARS-CoV-2 bidezko infekzio aktiboaren detekzio goiztiarrerako protokoloa**

2020ko irailaren 15a

URRIA 02

## Euskadi fisioterapia COVID-19aren Zaintza Aktiboko Sarearekin

NORENTZAT: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, Zuzendariordetza - Osakidetzako Erizaintzako Aholkularitza

*Gobernu Batzordeak Euskadiko COVID-19aren zaintza aktiboko eta detekzio goiztiarreko sarearen kudeaketarekin eta koordinazioarekin lotuta hartutako estrategiak.*

Elkargokide agurgarriak:

Atzo zenbait jakinarazpen igorri genituen Idazkaritza honetatik, zuetako askok jarduera eten edo zentroa ixteko jaso dituzuen ebazpenengatik salaketak/kexak helarazi dizkiguzuelako, COVID-19aren pazienteekin izandako ustezko "gertuko kontaktuen" ondorioz. Bada, gaur goizean jakinarazpen horiekin lotutako erantzun formala jaso dugu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren Zuzendaritzari lotutako COVIDaren Zaintza eta Kontrola Koordinatzeko Zentrotik, eta gurekin harremanetan jarri da OSAKIDETZAko Erizaintzako Zuzendaritza-Aholkularitza ere.

Erantzun horretan, berretsi egin dizkigute guk azaldutako arrazoizko irizpideak:

- Arreta fisioterapeutikoa ez da "gertuko kontaktu" gisa ulertuko gure protokoloan jasotako babes- eta kontrol-neurriak behar bezala errespetatzen badira; horrenbestez, ez da beharrezkoa fisioterapia-zentrorik ixtea edo fisioterapia-jarduerarik etetea.
- Gure erabiltzaileen artean kasu positiboren bat identifikatzen bada, kasuen jarraipena kudeatzen duen pertsonak dagozkion desinfektatzeko gomendioak emango ditu (zentroa, erabilitako materiala...). Desinfektatze-lan horiek lanorduz kanpo egin behar dira, pazienterik ez dagoenean. Horrek ez du esan nahi zentroa itxi edo jarduera eten behar denik.
- Elkarrizketa epidemiologikoa egin ondoren, jarraipena kudeatzen duen pertsonak uste badu arreta fisioterapeutikoa ematean EZ direla bete beharrezko babes- eta kontrol-baldintzak, adieraziko du gertuko kontaktua egon dela, eta Osasun Sailak emandako muturreko neurriak aktibatuko dira.

Pazientearen segurtasunerako protokoloetan eta COVID-19aren kontrako babes- eta prebentzio-planetan jasotako neurriak zorrotz betetzea gomendatzen dugu. Era berean, aztarnarien taldeek deitzen edo ebazpenen bat helarazten badizuete, ustez COVID kasu positiboren batekin kontaktuan egon zaretelako, aztarnariei zuen lanaren xehetasun guzti-guztiak ematea gomendatzen dizuegu.

Gure kolektiboa eredugarria da. Oso ondo ari gara egiten. Animo eta jarraitu aurrera begira!

Interesgarria izango zaizuelakoan, jaso ezazue agur bero bat.

Roberto Romero

URRIA 15

## COVID-19aren probak egiteko hitzarmena

NORENTZAT: Elkargokideak

*Hitzarmen itxia Quirón Salud-ekin, COVID-19a detektatzeko probak prezio berezian egiteko.*

URRIA 22

## COVID-19aren Zaintza Aktiboko Euskadiko Sareko fisioterapeuten datu-basearen proposamena

NORENTZAT: COVID-19 Zaintza eta Kontrol Koordinazio Zentroaren erantzuna

*"COVID-19AREN JARRAIPENA. KASUEN ETA KONTAKTUEN ZAINTZA EPIDEMIOLOGIKOA" ikastaroaren prestakuntza bete duten fisioterapeuten zerrendarekin eguneratutako datu-basea ematea.*

URRIA
09

## COfpVID-19 plana. 3. bertsioa

**NORENTZAT:** Elkargokideak, CGCFren idazkari nagusia, Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, Zuzendariordetza - Osakidetzako Erizaintzako Aholkularitza , Fisioterapeuten Espainiako Elkarteko Presidentetza

ikusi plana


Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

pLan COfpVID-19

Atención asistencial en Centros de Fisioterapia.

Propuestas de medidas adaptadas

Este documento es avalado por la Asociación Española de Fisioterapeutas(AEF)

AEF

PLAN cofpv DE VUELTA A LA NORMALIDAD

Versión 3ª - 6 octubre 2020





surne
seguros & pensiones




# SURNEVIDA

EL SEGURO DE VIDA MÁS COMPLETO

## Ahorra un 15% en tu seguro de vida

En la correduría de Seguros del Colegio de Médicos de Bizkaia, de la mano de SURNE, nos comprometemos a mejorar tu póliza individual en un 15%.
Surnevida es más que un seguro de vida, por eso te ofrece todas estas coberturas:

### DOBLE O TRIPLE CAPITAL
Posibilidad de contratación del doble o triple capital por accidente.

### TESTAMENTO ONLINE
Si lo deseas puedes testar sin moverte de casa.

### BORRADO DIGITAL
Eliminación de tus perfiles de internet y redes sociales en caso de fallecimiento.

### GASTOS DE SEPELIO

### ANTICIPO POR CÁNCER DE MAMA
Para lo más importante. Hacer frente al tratamiento y los mejores cuidados.

### PLATAFORMA MOOVE
Herramienta online para un estilo de vida más sano.

### COBERTURAS ADICIONALES EN CASO DE GRAN INVALIDEZ
Adecuación de la vivienda, vehículo y suministro de silla de ruedas.

bizkaiko medikuen elkargoa
colegio de médicos de bizkaia
SEGURMEC
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.
CORREDURÍA DE SEGUROS S.L.

**MÁS INFORMACIÓN**

94 435 46 00 / segurmec@cmb.eus / www.cmb.eus

Nº. Registro DGSFP J-1.281 Concertado Segruro de R.C. y de Caución conforme a la Ley 26/2006